

Ipar Euskal Herriko gazteek badute enplegua aurkitzeko aplikazioa

Telefono mugikorrerako «Ma Mission Locale» izeneko aplikazioa plantan eman du Akitania Berriko Missions Locales sareak. Beren geroari buruzko informazioa bilatzen duten 16 eta 25 urte arteko gazteei zuzendurik, lurralde bakoitzak bere bertsio berezitua izanen du.



Gazteek klik bakar batez ezagutu ahalko dituzte beraiei zuzenduriko eskaintzak. © DR

Ipar Euskal Herriko 16 eta 25 urte arteko gazteek baliabide berri eta erraz bat dute lan bat bilatu edo antolatzen diren gertakari ezberdinen berri izateko. Klik bakar batez eta edozein momentutan telefono mugikorrerako aplikazio batean informazioa eskuragarri izanen dute gazteek.

[«Ma Mission Locale» izeneko tresna berria](#) Akitania Berriko sareak abiarazi du eta sektore bakoitzak eskaintza bere errealitatera egokituko du. Hala, Ipar Euskal Herriko gazteek bertako informazio eta eskaintzak aurkitu ahalko dituzte etxebizitza, osasun eta enpleguari loturik. Aplikazioak probarako fase bat iragan du plantan ezarri aitzin eta erregulariki gaurkotua izanen da.

Aplikazio bat sortzeko arrazoia sinplea da. Urtero publikatzen den interneteko barometroaren arabera, 18-24 urteko gazteen %98ak telefono mugikorra du eta haietariko %97ak tresna hori erabiltzen du interneten sartzeko. #1jeune1solution plataforman ageri diren datuek diote gazteen %50a 22.00etatik 6.00etara konektatzen dela.

Egoera kezkarria

Mission Locale 1984an sortu zen Ipar Euskal Herrian eta egun 700 gazte inguru errezibitzen ditu 25 gunetan, horrendako lurraldeko eragile sozio-ekonomikoak mobilizatuz. Ipar Euskal Herriko egoera kezkarria dela aitortu dio Mediabaski Brigitte Cazalis zuzendariak: «2020an krisi sanitarioaren eraginak sumatu dira, 2019arekin konparaturik %10 emendatu baitira egindako harrerak. 'Lehen harreran' 1.350etik 1.470era pasa gara».

Gaineratu duenez, jendearen profilean ere aldaketak daude, diplomatuak eta adin ttipikoak emendatu direnetik. «Hori kezkarria da, erran nahi baitu bigarren hezkuntza utzi dutenen kopurua garrantzitsuagoa dela. 2020ko erdialdetik fintzen ari garen azterketa da, oso adi gaude», dio Cazalisek.

Halere, Ipar Euskal Herriko Mission Locale egiturak aitzinamendurako parada eskaini ahal izan du. Hala, «paradoxikoki» 2020an laguntzen dituen gazteen enplegura jauzi egiteko tasa atxikitzea lortu zuen. «Are gehiago, ikasketa kontratuen eskaerak emendatu genituen», argitu du zuzendariak. Izan ere, sektore guztiak ez dira berdin kaltetuak. Banaketa sare handietan, pertsonetikiko zerbitzuetan, zahar-etxeetan edota eraikuntzan kontratuak eskainiak izan dira. Formakuntzak atxikitzea ere lortu dute, haatik, lan ikastaldiak %30ean apaldu dira.

Gazteentzat diru-laguntzak

Arlo publikoan gehien emendatu diren herriak Angelu, Biarritz, Baiona eta bereziki Hendaia izan direla jakinarazi du Brigitte Cazalisek. «Eskaintzen duguna oso baliotsua da. Harrera bakoitza manera pertsonalizatuan landua da, indibidualizaturik, entzuketa lan batekin».

Gisa berean, Mission Locale egiturak gazteei diru-laguntzak emateko konpetentzia duela oroitarazi du, bai laguntza puntualekin bai prekarietate egoeran bizi diren gazteei sustengu iraunkorragoa eskainiz, hots, 497 euro hilean, betiere baldintzak batzuei loturik.

Enpleguaz harago, edozein oztoporen aitzinean aterabideak aurkitzeko misioa ere badu gazteei zuzenduriko egiturak. Hori dela eta, etxebizitza, garraio, familia edota osasun arloan partaide ezberdinekin elkarlanean ari da. Prekarietatetik eta aukera ezetik atera eta bizi duinagoa izateko gazteentzat parada on bat.